

GUaiXE.net



Emakumeen
Frontenis
Txapelketako
finalak

Kirolak >> 12



Sakanako kultur aniztasuna
erakusten duen **kontzertua gaur**
Olatzagutian: Munduko Musikak.
Hainbat sorpresa iragarri dituzte

Kultura >> 15



Urbasako
kanpina
garilaren 10ean
zabalduko da
>>>7

RENFEK ez du
trenik kenduko
>>>5

Galderak goi
tentsio lineaz
>>>10

Larraun ibaia
garbitzeko
deialdia egin
da biharko
>>>7



Inasako langile ohiek bihar eguerdirako manifestazioa deitu dute. Sakanako udalen eta Kirol, sindikatu eta gizarte eragileen babesa dute deitzaileek.

Erosketa eskaintza erantzunaren zain

>>>7

Errausketarako lanen
interes orokor
izendapenari helegitea

>>>9

Behatokiko lantaldeak
osatuta, diagnosian
lanean hasiko dira


>>>5



Etxarrin
galdeketa
egiteko asmoa
berretsia
>>>8



Aktibatzeko lau
aukera berri
Sakantzen-en
eskutik
>>>5



Aixitako
gazteluan
mugarria
mustuko da
>>>8



Hondakin bilketa
sistema berria
garilaren 8an
>>>3

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Bizitzaren edertasunaren adierazgarri, urtez urte!! ZORIONAK!!!! M.....)



Joste eta Itziar
Badatorrela, badatorrela 3. ezkontza "xelebrea"... Primeran pasako dugu denok elkarrekin egun hau ospatzen!
ZORIONAK BIKOTE!



Irati Aldaz Iparragirre
ZORIONAK etxeko printzesari! Jarraitu beti bezain alai eta sorgintxo. Muxu-potolo bat. Etxekoak.



Asmatu nor den. Iturmendikoa da. 10 urte beteko ditu. Trikimailuak egin, bai egiten ditu, bai. Bihurri xamarra da. Ah, bai!! AHI-LETZ!! ZORIONAK!!



Raul ZORIONAK!!
Ongi pasa eguna!! Muxu asko etxekoan partez.



Nora Razkin Piñas
ZORIONAK TXIKI!! Ongi pasa zure urtebetetze egunean!! Segi horren alai eta maitekor. Mila muxu!! Alain, izeba eta osabaren partez.



Asun ZORIONAK amona, ama. Eskerrik asko horrelakoa izateagatik.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

garagarriak-garilak

28-4

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Kituka Burundi+Irurtzungo Djenbe taldea+Youssef Kajji+Maider Ansa+sorpresak. Garagarriaren 28an, ostiralean, 20:00etan Olatzagutiko sutegi parkean. **Munduko Musikak.**

Alejandro Vetto. Garagarriaren 28an, ostiralean, 21:00etan Irurtzungo igerilekuan. **Silvio Rodriguezi tributua.**

Flitter+Dida. Garagarriaren 28an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenean gaztetxean.

Dokumentalak

CAN Kutxa Hutsa - El Gran Golpe. Garagarriaren 28an, ostiralean, 19:00etan Iturmendiko auzogelan. Hizlaria: Kontuz! Elkarteko kide bat. **IGA.**

Mendi irteera

Goi tentsioaren aurkako mendi martxa. Garagarriaren 29an, larunbatean, 9:30ean Lakuntzako plazatik abiatu eta bertako basoan.

Txirrindulari irteerak

XXII. Gasteizko zeharkaldia. Garagarriaren 30ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Burunda txirrindulari taldearen mendi bizikletako egoitzatik. 40 km.

Irteerak

Irañetako iturburua+haritzen ibilbidea. Garagarriaren 30ean, igandean, 9:30ean Irañetan. **Immigrazio Zerbitzua.**

Hitzaldiak

Energia subiranotasuna Nafarroan.

Garagarriaren 28an, ostiralean, 18:30ean Lakuntzako plazan. **Hizlaria: Pablo Lorente, Sustrai Erakuntza fundazioa.**

Bestelakoak

Larraun ibaiaren bazterrek garbitzea. Garagarriaren 29an, larunbatean, 10:00etan Irurtzungo Matxain jatetxeko aparkalekutik. **Irurtzun eta Arakilgo Udalak.**

Lipmugi. Garagarriaren 29an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Etxarri Aranatzan.

Aixita gazteluko monolitoaren mustutzea. Garagarriaren 29an, larunbatean, 17:30ean Etxeberrin.

Irurtzun Telebistaren aurkezpena. Garilaren 4an, ostegunean, 20:00etan Iratxo elkartearen. Lehen 3 saioak eta otamena.



Izurdia gakoak, festetan. San Juan sua piztu zuten, Sakanako herri guztietan bezala.

Ur festa goxoa. Garilaren 3an, asteazkenean, 21:00etan Uharte Arakilgo igerilekuan eta garilaren 4an, ostegunean, 21:00etan Irurtzungo igerilekuan. **Gozamenez.**

Deialdiak


Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 28an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Inasa aurrera! Garagarriaren 29an, larunbatean, 12:00etan Irurtzungo Inasako lantegitik manifestazioa. **Langile ohiak.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 30ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garilaren 1ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Bazkide zozketa



GARAGARRILEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA
2- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA

3- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA
4- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA

Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Egunekomenuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

50 €ko erosketa batengatik Julene dendan erabiltzeko %10 deskontu balea.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI

% 5a depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI

Dendako produktueta % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI

% 10eko deskontua eguzki betaurrekoetan eta % 15eko

betaurreko graduatuetan.

GOROSTI

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

>> Arbizu

Herri baten aurrera egiteko borondatea



Napoleonen tropek izua ekarri zuten Arbizura.

Horixe antzeztu zen larunbatean Arbizun. Duela bi mendeko gertakariak gogoratuz, baina gaur egungo nahia ere islatuz. Hori erakutsi baitute makina bat arbizuarrek larunbateko ikuskaria aurrera ateratzerakoan eta haien herriko historiaz interesa azaltzerakoan.

Ihesean joaten ziren Frantziako tropek herri erdia erre zuten eta gertaera hori gogoratzeko prestatu zen gau-ikuskizuna. Eta, jakina, sua, suziak eta bengalak, izan ziren elementuetako bat; suntsipenaren eta birsortzearen elementu bihurtu zen sua. Argia izan zen beste elementu bat; hainbat une azpimarratzeko balio izan zuena. Eta, musika, Pello Reparaz musikariak konposatutako *Sua, elektro-sinfonia* izan zen ema-

naldiaren ardatza; hainbat unetan danbor hotsez zirraragarriagoa bihurtu zena.

Ikuskaria

Napoleonen tropen etorrerarekin eta arbizuarren basorako ihesarekin hasi zen dena. Aire martzialak nagusitu ziren. Sua nabarmenduzengero, soldaduek herriari su eman ziotelako gauaren iluntasunean. Dolua azaltzeko garaian, erretako etxe bakoitzaren izenak errezitatu ziren. Aldi berean, emakume bana atera zen kandelana bana, esperantzaren sua, eskuan zutela. Su hori emanaldiaren akaberan piztu zen, herritarren itzulera, batasuna, elkartasuna eta herriaren berreraikitzea irudikatzean.



Arbizuar askok parte hartu zuten.

SAKANA

Garilaren 8an jarriko da martxan hondakin bilketa berria

Herri txikietan bilketa mistoa eta koxkorretan etxeko bilketa, bi sistemak martxan aldi berean jarriko dira

Sakanako Mankomunitateak gaur abiarazi nahi zuen hondakin bilketa sistema berria, baina atzeratu beharra izan du. Eguraldiak, alde batetik, ez du utzi larrialdi guneak edo egurrezko auzo konpostagailuak jarri behar diren tokiak behar bezala prestatzen. Horrek hondakin bilketa sistema berrirako azpiegitura guztiak jarri gabe egotea ekarri du. 65 eraikuntzetatik 20 bat daude jarri gabe.

Auzo konpostagailurik ez zegoenez, konposta egiteko estrukturrantea non utzi ez zegoen eta hura gabe konposta egoki egiteko bermerik ez zegoen. Gainera, zenbait herrietako festek denda eta lantegietan materiala egoki bana-

tzea eragotzi diote Mank-i. Horregatik sistema berria garilaren 8ra atzeratzea erabaki da.

Bi sistema

Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutia dira hondakinak gaika jasoko dituzten herriak, egunero. Gainera, hondakin organikoekin konposta egiteko aukera izanen dute herritarrek, etxeko edo auzo konpostagailuekin.

Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoiena eta Lizarragabengoan hondakinak biltzeko guneak jarriko dira eta haietan hainbat edukiontzi izanen dira. Herritarrek hango giltza izanen dute hondakinak dagozkion edukiontzian botatzeko. Horrekin batera, konpostagailuak banatu dira udalerrri horietan.

Parlamentariak bisitan



Asteartean Nafarroako Parlamentuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Batzordeko kideak Sakanan izan ziren hondakin bilketa sistema berria ezagutzeko. Mank-eko Aitor Karasatorrek, Adolfo Araizek eta Iker Manterolak eman zizkieten azalpenak parlamentariak Lakuntzan. Ondoren, Lakuntzako larrialdi gune bat, Etxarri Aranatzko auzo-konpostagailuak, Arbizuko hondakindegia eta Zuhatzuko ekarpen gunea bisitatu zituzten.

Victor Rubiok (Bildu) "Sakanakoa Nafarroako beste eskualde batzuetan ezarri daitekeen etorkizuneko apostua" dela ziurtatu zuen. Begoña Sanzberrok (UPN) esan zuen ez daudela ez alde ez kontra, "bizpahiru urte itxaron beharko dira gizarte eta ekonomi kostuak aztertzeko". Carmen Otxoak (PSN) ziurtatu zuenez, "hau da etorkizuna, ez du zentzurik Nafarroa guztiko zaborra garraiatzen segitzea, ez da jasagarria". Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok (Aralar-Na Bai) "sistema herri bakoitzaren beharretara egokitzeko" ahalegina eta prozesu parte-hartzailea nabarmendu zituen.

Bulegoak zabalik

Herriaren arabera, populazioaren %10 eta 15 artean hondakin

bilketako materialak ez dituzte jaso. Mank-etik deia egin diete Uharte Arakil, Etxarri Aranatz

eta Olatzagutian zabalik dauden bulegoetatik haiek jasotzera pasadaitezen.

belexe *online*
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda

Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, Inasa, Sakantzen Sarea, Etxarriko galdeketa, Altsasu Memoria...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

Katalunian hizkuntzakeriko eskubide indibidualak

Wert ministroaren bidez, LOMCE delako Hezkuntz Lege berriekin, formula berri bat irekitzen ari da Kataluniako eskoletan gaztelaniaz heitzeko alana nahi duten ikasle eta familientzat. Honek esan nahi du, orain arte inoiz eta inolaz hizkuntza eta gutxiengoaren eskubideak defendatu ez dituztenak, Katalunian gaztelaniaz bizi nahi duten gizabanakoaren eskubideak errebindikatzeko prest daudela. Eta honen ondorioz, hizkun-

tza gurutzada berri bat ireki.

Hezkuntza sisteman, hizkuntza-murgiltzea dela eta, Madrildik gaizki ikusten da Katalunian katalanez hezitzea. Eta nahiz eta gaztelaniaren indarra ziurtaturik izan Espainia federakuntza arraro honetan, aniztasunaren izenean, Katalunian gaztelaniaz ikasteko gutxiengoaren eskubideak panfleto politiko berria bihurtu zaigu beste argudio politiko eta ekonomikoak estaltzeko.

Zergatik kultur bakarreko zale-tasun hau? Eta zergatik Espainia bakar baten defendatzaileek ez dute denon, gizabanako guztien eskubideak azpimarratzen? Nafarroan gutxiengoaren eskubideak defendatu eta defendatuko balira, zenbat eskola eta zerbitzu behar dira euskaldun guztien eskubideak errespetatzeko? Hori litzateke benetako hizkuntza eta kultura zaletasuna izatea. Bestela, 1978ko Konstituzioa errespetatzeko pro-

klama erabiliz, Katalunian gaztelaniaren eskubideak errebindikatzen dira. Nafarroan, berriz, euskara eta euskaltzaleari dagozkien eskubideak, noiz errespetatu dira? Ez da oso demokratikoa baremu ezberdinak erabiltzea antzeko bi kasuetan. Gaztelaniaren tokia, eta gaztelaniarren eskubideak Katalunian errebindikatzen badira, euskararen lekua eta euskaltzaleen eskubideak Nafarroan ere kontuan hartu behar dira.

astekoa barrutik kanpora

Maiatza - ekaina

11 Atxiloketa / Estradizio 1 / Urtebeteko kartzela presoan argazkia jartzeagatik, / 8 dira aske geratutakoak, urteak eta urteak eginda ia denak, Karlos Apeztegia etxarriarra tartean / Laugarren aldiz ukatu diote Frantzian Ion Kepa Paroti baldintzapeko askatasuna, 23 urte daramatza preso / 2 stripu, 6.a aurten, 16 dira errepidean hildakoak / Funtzionario batek kolpatu egin du euskal preso Murztzia II kartzelan / Gose grebak Muret eta Gradignan kartzelatan tratua salatuz / Josune Arriaga Iruñara ekarri dute ama ikusi ahal dezan, hamarkada osoan ez dute elkar ikusi / Eskuburdinekin lotuta edukitzen dute erradioterapia saioetan Ventura Tome / 5 gazte ez dira kartzelara joango, absolbitu edo zigortxikia jarri diotelako. / 9 kartzelari epaituak tratatu txarregatik.

Asierrek egin ditu azken azterketak / Urteak bete ditu Hodeik: zorianak!

Estatuko Talde Koordinatzaileak 29 egoera latz kasu antz eman ditu joan den urtean Euskal Herrian. Europako Torturaren Prebentzioarako Kontseiluak egiaztatzen eman ditu 10 tortura kasu Espainian. ONUko Giza Eskubideen Komiteak ziurtatzen eman du Guardia Zibilak torturatu egin zuela Maria Atxabal. Gainera, Espainiako Gobernuak behartzen du torturok ikertu, eginiko kalteak kitatu eta mediku zaintza ematea. Sarekada berri bat, tratua ez da izan hain bortitza, baina kolpatu dituzte. Plazara! ekimenean milaka herritar bildu zen Euskal herriko plazetan. Ondarroan eta Donostian giza hesiak egin ziren atxilotuak poliziarengandik babesteko. LASTERBIDEAN ekimenean milaka jendeke parte hartu zuen Oiartzunen presoan aldeko maratoian. Etxean nahi ditugu.



Sakanako Etxerat

hara zer dien

Pertsona ezgaituen esaldi ezberdinak

"Aspertzen zaitut, ama?" "Agobiatzen zaitut, ama?" "Ama, galdera bat egin ahal dizut?" "Ama, zer da ezgaitu intelektuala?" "Ama, daukadan ama bakarra zu zara !!!" "Ondo hitz egiten al dut?" "Pertsona batek zergatik dauka ezgaitasuna?" "Badakit zailtasun batzuk dauzkala, baina ez nau arnasa hartzen uzten!!!" "Nire gurasoekin hitz

egin nahi dut baina ez naute ulertzen eta azkenean haserretuta bukatzen dugu, ni ere bai, eta triste jartzen naiz...." "Barkatuko nauzu? Nahi gabe izan da, ez dut berriro egingo..." "Ama, ama, non zaude? Beldurtuta nago... Maite nauzu?" "Zer egingo dugu gero?... Noiz egingo dugu hori?" ... (hamar aldiz adibidez...)

"Ama, zer pasatzen zaizu? Haseurretuta zaude nirekin?" "Nik arazo bat neukan baina botika hartzen dudanez hobeto nago eta jende berriarekin harremanak izan nahi ditut..." "Pertsona ezgaitu hori, urduri dago, ez dago ondo, botikak hartzen ditu..." "Pertsona hori, ezgaitua da, ni bezala?" "Ez daukat senargaia, mutilak

arazorik besterik ez dituzte ematen..., gainera eraztuna ez daukat ezkontzeko..." "Zuekin ondo eta normal hitz egiten badut, zergatik beste pertsonekin ez???" "Nik gurasoekin ez dut lanik egingo haiek nirekin ondo portatu arte....."

Sakanako Ezgaituen Elkartea

gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

2013ko ekainak 28.

Heteroarauarekin hautsi!

Kitz Mendiola Barandalla eta Izaskun Jarones Berjera, Bilgune Feministaren izenean

"Aita, ama zenbat urterekin ezkonduko naiz... 1, 2, 3..." sokari eraginez, saltoka eta abesten igaro ditugu haurtzaroko momentu asko eta asko. Txiki-txikitatik bikotea izateko beharraz ohar-tzen gintuzten marrazki bizidunetako protagonistak, maitasun erromantikoa ardatz zituzten eta

dituzten filmak, iragarkiak ikusiz hazi eta hezi gaituzte.

Heteroarauak agintzen du gurean, errenta aitortpena egiteko ere, pertsonen gaineko zerga izanik, egoera zibila galdetzen dizute: ezkondu al zaude? Ez, eskerrik asko!

Eta galdera, ideia hauek datozkigu gogora: Bikotea behar al dut orekatua sentitzeko? 33 urte ditut eta oraindik ez naiz ama izan, zergatik erabaki behar dut? Zergatik desio ditut gizonak? Zergatik....

Heteroaraua patriarkatuaren ezarpenaren zati bat da eta hori hausteak bazterkeria eta zigor soziala ekartzen ditu. Gizon-ema-kume binomioa eta sexu-genero sexualitatearen arteko harreman naturalizatua sistema patriarkalaren aginduak dira, sozializazio prozesu indartsu baten ondorioz gure bizi proiektuetan, gorputzetan, erabakietan eragin handia duena. Hortaz, gure desio eta gorputzak heteroarautik kanpo kokatzen direnean, ezarritako emetasunaren moldeetan sartzen

ez garenean, zigorra modu anitzetan agertzen da: bazterketa soziala, administrazioaren aurrean oztopoak, erasoak, e.a. Eta hori gutxi balitz, egun, eskuin muturreko sektore kontserbadoreenak, dogma akuilu, herritarren askatasunaren aurka gogotsu dabilta boteredun politiko eta erlijiosoak bat eginik.

Horregatik, ezinbestekoa dugu heteroaraua haustea, ofentsa ultraeskuindarra salatzea eta harreman eredu berrien aldeko saiakeran jarraitzea!

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Mari Luisa Zelaia Mendia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

ITBREN AURKEZPEN GALA: Ostegunean, 20:00etan, Iratxo elkartearen Irurtzun Telebista (ITB) jendaurrean aurkeztuko dute. Aizpea euskara taldearen blogean ikusgai

dagoen telebista saioko protagonistak eta sustatzaileak izanen dira ekitaldian. Maiatzaren 17an abiatu zituen emanaldiak ITBK.

sakanerria >>

SAKANA

Behatokiko lan taldeak osatuta

Aste honetan eta hurrengoan aurreneko bilerak egingen dituzte

Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak (SSB) makina bat eragile biltzen ditu eta Sakanarako plan estrategikoa onduko du. Gainera, lau arlo estrategiko zehaztu zituzten; turismoa, lehen sektorea, industria-zerbitzuak eta energia (biomasa, energia eraginkortasuna eta, horri lotuta, eraikuntza).

Arlo bakoitza lantzeko lan taldeak sortu dira pertsona aditu eta arituekin. Herenegun industria

eta zerbitzuen lantaldearen aurreneko bilera izan zen. Gaur turismoaren txanda da; asteartean eta ostiralean bilduko dira, berriz, energia eta lehen sektoreko lantaldeak. Sakanako Garapen Agentziako (SGA) Iker Manterolak argitu digunez, haien egitekoa egoera diagnostikatzea da: "ditugun ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta etorkizuneko aukerak aztertuko dira". Herenegungo bileraz, esan digu "Sakanarekiko konpromisoa, partehartze anitza eta



Behatokia eratu ondoren bilera gehiago egingen dira.

jarrera eraikitzailea" izan zirela ezaugarri nagusiak.

Uda akaberarako espero dituzte diagnosiak. Dokumentuak

Parte hartzea

Egindako lanaren ondorio eta dokumentuak www.sakanagaratzen.com ikusgai izanen dira. Gainera, haren bidez ekarpenak egiteko aukera izanen da. Bestalde, Plan Estrategikoaren ekintza plana onartzean, ekitaldi publikoak egingen dira herrietan.

SSBri aurkeztuko zaizkio. "Ondoren, Sakanako ahulguneak indartu, indar guneei etekina atera eta etorkizuneko erronkei erantzuteko proposamenak lantzen hasiko dira lantaldeak. Ondoren Behatokiak onartu beharko ditu.

Aktibatzeke lau aukera berri

Sakantzen Sarearen III. lan jardunaldian turismoa, marken sormena, internet sareak eta langabe-tuendako orientazioa arlotan lan dinamikak sortzeko aukerak aurkeztu ziren. Aurreko edizioetan bezala, beste eskualde batzuetan tokiko garapena sustatzen ari diren enpresen ereduak aurkeztu ziren larunbatean Olatzagutian. Haien lana Sakanara nola ekar litekeen aztertzeko jardunaldia izan zen hirugarren hori ere.

Olatzagutiara gerturatu zire-

nek ibarrean egoki aplikatu litekeen aukera berriak entzun zituzten. Hizlari interesgarriak entzuteko aukera izan zen Olatzagutian. Baina antolatzaileek beraiek sakandarren parte hartze txikia nabarmendu zuten.

Aurrera begira

Urtebete da martxan dela Sakantzen Sarea. Sakanako garapena ekonomikoaren sustapenarekin eta lanketarekin oso konprometuta jarraitzen dute bere kideek.

Bost egitasmo

Horiek dira sarearen itzalera garatu direnak: Sak-In kontsultingna (aholkularitza zabala), Sakana Experiencie (abentura enpresa), Bai Bike (txirindula alokairu zerbitzua), SKA (komunikazio agentzia) eta Zuka (kirol zerbitzua).

Handik sortutako egitasmoek ere lanean jarraitzen dute. Sakanan egiteko asko dagoela uste dutela-



Hizlariaren azalpenak entzuten.

ko aurrera egingen dute. Eta Euskal Herriko hainbat arlotatik jasotako babesak izanen dute akuilu-

bide horretan. Baina aurrera egiteko sakandarrak dinamikan gehiago sartzea eskatu zuten.

Arakil / Irurtzun

Arartekoak Biurdana batzordearekin biltzera gonbidatu du Gobernua

Arartekoak Hezkuntza Departamentuari gomendatu dio Iruña Iparraldeko Institutuko Batzordeko kideekin biltzea eta Nafarroako Gobernuak ikastetxe horrekin dituen iritzien eta aurreikuspenen berri eman diezaiela. Hilaren 17tik departamentuak bi hileko epea du gomendioa bere egiteko.

Arartekoak, bestalde, frogatu-

tzat jo du departamentuak bitan ez diela batzordeak erregistroan Biurdanari buruz aurkeztutako eskabideei erantzun. Epe barruan eta idatzi erantzun beharra duela gogorazi dio Iribasi. Horrek, bestalde, Arartekoari batzordearen bitartekaritza ez duela onartzen adierazi du; ez direlako Guraso Elkarteetakoak.

SAKANA

Luzera ertaineko trenen ordutegiak aldatu egingen dituzte

Renfek jakinarazi digunez, Hego Euskal Herriko distantzia ertaineko trenen zerbitzua definitzen ari da. Konpainiak ziurtatu diguna da ez dela tren zerbitzurik kenduko; "dauden ordutegiak egokitu egingen dira". Beraz, Sakanan gelditzen diren eta Iruña eta Gasteiz lotzen duten tren zerbitzuak mantendu egingen dira.

Tren konpainiatik azaldu digutenez, aldaketa hilaren 30etik

aurrera emanen da. "Ordutegi doikuntza atzeratu egin da Hego Euskal Herriko tren ordutegiez aparte Errioxa eta Aragoikoak ere sartzen baitira". Renfetik ziurtatu digutenez, aldaketaren arrazoia da "zerbitzuak arrazionalizatzea, herritarren mugikortasuna bermatu eta tarteko geltokiek ibilbide luzeko trenekin loturak hobetzeko (Madril, Batzelona, Zaragoza, Valladolid...)"

Egituratu gabe

Trenbideak Sakanan zeharkatzen du baina urteak dira herri guztietan geldialdirik egiten ez duena. Gaur egun trenak soilik Uharte Arakil, Etxarri Aranatz eta Altsasun gelditzen dira. Geltokia egon arren Izurdiagan ez da trenik gelditzen. Beraz, Aranaz edo Burunda alde-tik Arakil edo Irurtzun aldera joan behar duenak beste garraio bide batzuk bilatu behar ditu.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneretik ostiralera
Eguneko menua 8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauek

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdain: 948 563 763

MAPFRE ALTSASU

% 50 ERA ARTEKO DESKONTUA
KOTXEETAKO ASEGUZETAN

Koixeen aurrekontua eskatzeagatik, aurreko kristalerako tratamendu baterako balea opari

J.A. Imaz Prim
Tel: 948 563 354 • Faxa: 948 562 151
San Juan, 48 • ALTSASU • jimazpr@mapfre.com

San Pedroak Sakanan

Festak: San Joanei agur eta San Pedroei ongi-etorri

ARRUAZU

ARBAZUKO JEYEK 2013

>> Garagarriek 28, ostiela

18:30ean Kiosko berriyeen mustutzia. Alkatearen hitzak eta brindisa txanpainaakin.
19:00etan Suziria kiosko berrietik!
19:30ean Meza SAN PEDRO baselizen.
20:00etan Meenduba Sanpedrondon. Guziyek baserritarres jantziik!
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataatik.
22:30ean Arbazuko Zortzikua herriko plazan.
23:00etan Herri afaaiya ITUR GAIN Elkartien.
00:30etik 04:30era Dantzaldiya OROTS taldiekin.

>> Garagarriek 29, launbeta

12:00etan Meza.
15:00etan Bertso bazkaaiya Ruben Sanchez eta Julen Zulaikaakiin.
18:00etan ARBAZUARREN ARTEKO APOSTUBA. Zarrapilek Imermauben aurka herriko frontonien.
20:00etan Gazta ta ardua guziyendako.
20:00etatik 22:00etara Dantzagariyek GOZO-GOZOokin.
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataatik.
22:00etan Parrilla afaaiya kuadrilleka.
01:00etatik 04:00etara Dantzaldiyek ta leixterkak GOZO-GOZOokin.

>> Garagarriek 30, iyendia

17:00etan Mus Iñeztura Itur-Gain Elkartien.
17:00etan JOLAS PARKIA haurrendako.
20:00etan Gazta ta ardua guziyendako.
20:00etan Biñekako Pala Txapelketako Finala.
20:00etatik 22:00etara Dantzagariyek TXIMELETA taldiekin.
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataatik.
22:15ean Herri afaaiya Herriko Itxen.
00:30etik 03:30era Dantzak, irri ta zirriyiek TXIMELETAakin.

>> Garilek 1, astelena

15:00etan Kuadrillen arteko bazkaaiya fanfarriaakin.
17:00etan Fanfarre Mozkor Erronda ITXES-ITXE.
18:00etan IRRIEN LAGUNAK Kanta eta Dantza ikuskizuneeekin.
19:30ean Haurrendako txokolatada.
20:00etan Gazta ta ardua guziyendako.
20:30etan Burus-buruko Pala Txapelketako Finala.
20:00etatik 22:00etara Iruña Taldeko Fanfarria.
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataatik.
22:30ean Herri parrillada plazan.
00:30etik aurria Gaupasa Ostatuben.

UNANU

SAN PEDRO 2013

>> Garagarriak 28, ostirala

12:00etan Haurrentzako jolas parkea.
15:00 Bazkaria.
17:00 Haurrentzako jolas parkea.
20:00 Auzatea.
20:00etatik 22:00etara Alaiki musika taldea.
22:00etan Afaria.
00:00etatik 4:00etara Alaiki musika taldea.

*Trikititxa egun osoan zehar.

>> Garagarriak 29, larunbata,

San Pedro Eguna
12:00etan Meza Nagusia.
13:00etan Luntxa.



Aurten 25 urte bete dira San Pedro ermita berri zutela.

13:30ean Asto kaka lehiaketa.
15:00etan Bazkari herrikoia.
18:00etan Bordetxe animaliak.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 22:00etara DJ Julen.
22:00etan Afaria.
00:00etatik 5:00etara DJ Julen.

*Trikititxa egun osoan zehar.

>> Garagarriak 30, igandea

8:00etan Gallunbo eta tanga lasterketa.
8:30ean Sari nanaketa herriko plazako kioskoan.
12:00etan Neska Proba. Aiako neskek 450 kiloko harriari tiraka, eta Ivan Resano aizkolaria egurra mozten.
13:00etan Jotak.
15:00etan Bazkaria.
18:00etan Pilota partiduak.
20:00etan Auzatea eta festen amaiera.

*Trikititxa egun osoan zehar.

ARBIZU

SAN JOANAK

>> Garagarriak 28, ostirala.

Preso eta iheslarien eguna
10:00etan Dianak herriko txistulariekin.
12:00etan Tailerrak.
12:00etan Pintxo txapelketa.
12:00etan Aate (Herrira).
13:00etan Pintxo dastatzea. Triki-bertsopintxo-poteoa.
17:30ean Izozkiak haurrendako.
18:00etan Haur ginkana.
20:00etan Aate eta buruhandiak.
20:00etan Konzentrazioa.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Gozo-Gozo taldearekin.
23:59etik 03:00etara Dantzaldia Gozo-Gozo taldearekin.

>> Garagarriak 29, larunbata.

Haurren eguna
12:00etan Aate (Zotola).
12:00etan Jolas parkea.
14:00etatik 14:30era Haurren bazkaria.
16:30ean 4x4 erakustaldia.
16:00etatik 19:00etara Jolas parkea.
16:30ean Mus eta brixka txapelketa
20:00etan Aate.
20:30ean Urteko omenduak eta sari banaketa.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia The

Trikitiens taldearekin.
23:59etik 3:00etara Dantzaldia The Trikitiens taldearekin.

LIZERRENGO

SAN PEDROAK 2013

>> Garagarriak 28, ostirala

19:30ean Txupinazoa.
20:00etan Aate.
21:30ean Afaria.
23:30etik 2:30era Dantzaldia.

>> Garagarriak 29, larunbata

12:30ean Erronda etxex etxekoa trikitilarietara.
16:30etik 20:00era Puzgarriak. Xexena, aurpegi margoketa, birziklatze tailerra, malabarismo tailerra eta frogaren jolasa taldeka
18:30ean Aizkolaria.
20:00etan Enkartzelada Euskal preso eta Hieslariak Euskal herrira.
20:00etan Aate.
21:30ean Afaria.
23:30etik 2:30era Dantzaldia.

>> Garagarriak 30, igandea

12:30ean Erronda etxex etxekoa trikitilarietara.
16:30etik 20:00etara Puzgarriak. Herri kirolak, talo tailerra eta txokolate jatea.
20:00etan Aate.

URDIAN

SAN PEDRUEK 2013

>> Garagarriak 29, larunbata

11:00etan Buruhandiak margotzeko tailerra.
12:00etan Etxajua eta festen hasiera El Cohete txarangak alaitua.
13:00etatik 14:00etara Trikipoteoa (Urdaingo gazteek antolatuta).
13:00etatik 15:00etara Kuadrillen arteko kalderete txapelketa. (Suak Udalak jarriko ditu).
17:00etan Kuadrillen arteko herri kirol txapelketa.
20:00etatik 22:00etara Drindots taldearekin dantzaldia.
22:00etan Euskal Presoen aldeko herri afaria.
1:00etatik 4:00etara Drindots taldearekin dantzaldia.



Giro bikaina jarri zuen Gozategi taldeak Arbizuko plazan.

>> Garagarriak 30, domeka

10:00etan Erromeria San Pedro baselizarra.
12:30ean Meza nagusia San Pedro baselizan.
14:30ean Bazkaria San Pedroko zelaian.
17:00etan Zortzikoa.
19:00etan Salbea eta herrirako itzulera.
20:00etan 21:00etara Astoaren urrezko kaka lehiaketa futbol zelaiari trikitilarietara alaituta (Urdaingo gazteek antolatuta).
20:00etatik 22:00etara Sakanako trikitilariak plazan.
22:00etan Zezensuskua.
00:30etik 2:30era Tsunami taldearekin rock bertsoak.

>> Garilak 1, astelehena.

JUBILATUEN EGUNA
10:00etan Gosaria alondegian, Tintinurri elkartearen eskutik.
12:00etan Meza.
12:00etan Herriko dantzari txikiak.
13:00etan Bixente Setoainekin musika plazan.
14:30ean Jubilatuen bazkaria frontoian. Ondoren Bixente Setoainekin dantzaldia.
15:00etan "Gizonen bazkaria" El Cohete txarangak alaitua.
18:00etan Zirika Zirkusen eskutik zirko tailerra eta ikuskizuna.
20:00etatik 22:00etara Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
12:00etatik 3:00etara Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

>> Garilak 2, asteartia

10:00etan Gosaria alondegian, gizonen eskainia.
12:00etan Musika plazan.
14:30ean Emakumeen bazkaria El Cohete txarangak girota.
17:30ean Haurrendako talo eta txalaparta tailerrak plazan. Haurrendako jolasak (Urdaingo gazteek antolatuta).
20:00etatik 22:00etara Unsain anaiak taldearekin dantzaldia.
12:00etatik 3:00etara Unsain anaiak taldearekin dantzaldia.

>> Garilak 3, asteazkena

10:00etan Gosaria alondegian. Aitziber elkartearen eskutik.
12:00etatik 14:00etara Eliza atarian haurrendako tatuaje tailerra, birziklatutako jolasak eta 0-3 haurrendako ludoteka eta puzgarriak.
12:30ean Aizkolaria eta harrijasotzailea plazan.
14:30ean Herri bazkaria.

17:00etatik 19:00etara Jolas parkea, joku elektronikoa, gurasoendako eta haurrendako motorrak.....
20:00etatik 22:00etara Trikidantz taldearekin dantzaldia.
22:00etan Zezensuskua.
23:00etan Trikipoteoa plazatik hasita (Urdaingo gazteek antolatuta).
00:30etik 3:30era Trikidantz taldearekin dantzaldia.

*Egunero, eguerdi eta iluntzean, ardoa banatuko da.

ALTSASU

SAN PEDRO 2013

Egun handia iritsi da

10:00etan Udaltzako txistulariekin batera, San Pedroko zelaira abiatuko da.
10:45ean Auzatea eta zortzikoa.
14:30ean Bazkaria.
17:00etan Udaltzaren agurra zelaiari barrena. Puruen banaketa. Alkateak zortzikoa zabalduko du.
20:00etatik 21:45era Erromeria.com Foruen Plazan.
22:00etatik 24:00etara Dantzaldia Haize Berriak bandarekin Foruen Plazan.
24:00etatik 3:00etara Erromeria.com Foruen Plazan.

Udalaren oharrak:

Natur gunea bere horretan mantentzeko denen laguntza ezinbestekoa denez, zaborrontziak erabiltzea eskatu du Altsasuko Udalak. Suak partekatzeak aholku eman du udalak. Eta gogorazi du zuhaitz txikien ondoan ezin dela surik piztu. Aldi berean, komun publikoak ere jarriko ditu eta haiek txukun erabiltzea eskatu du. Zabor gutxiago sortzeko barretan edalontzi birziklatuak erabiliko dituzte. Arduraz kontsumitzeko aholku eman du Udalak. Ibilgailuendako zelairako bidea 10:30ean itxiko da; orduetik aurrera Urdaingo jolas beharko da zelaira. Bestalde, udal igerilekuetan eta futbol zelaiari partekatzeak aukera izanen da. Errepide bazterrean debekatuta dago aparkatzea. Eguraldiak lagunduko ez balu erromeria Burunda frontoira lekualdatuko litzateke. Etxeko eta familiako ardurak denen artean partekatze ere eskatu du udalak.

SAKANA

Urbasako kanpina bi aste barru zabaldu nahi dute

Etxarri Aranazko eta Mendigorriako Errota kanpinetako arduradunek hartu dute kudeaketa elkarlanean

Gauzakongi garilaren 10ean zabalduko ditu ateak Urbasa Bioitza kanpinak. Sei hilabete itxita egon ondoren, hiru langile ari dira aste honetan beharrezko garbiketa eta margotze lanak egiten. Datorren astean beste bi gehituko zaizkielako horiek aurreratzeko. Kanpina zabalitzen denean 15 pertsona ariko dira lanean. Eguraldiak lagunduko balu, gehiago izanen lirake.

Urbasa Bioitza kanpina zabal-

tzeko ardura Mendigorriako Errota kanpineko Ana Beriain Apesategiak eta Etxarri Aranazko kanpineko kudeatzaile Floren Vicente Imazek hartu dute bere gain. Elkarlanean ariko dira. Kanpina hartzera bulkatu dituen kudeaketarako egokia izan daitekeen eta taldeak sortzeko gaitasuna duen pertsona opatu izana da. Hala aitortu digu Vicente. "Distantziara kudeatzea zaila da, guk gure kanpinak ditugulako. Dugun eskarmentuarekin, guk irizpide batzuk emanen dizkiogu".

Inbertsioak

Kanpinean hainbat gauza hondatuta daudela azaldu digu Vicente. Galdara berria, zenbait eraikinetako pilareak sendotu, kamara handi berriak... zerrendatzen hasi da. Horiek Gobernuak egingen ditu. Departamentuak ur ekarria hobetzeko lanak behar bezala eginak daudela probatu beharko du.

Haiek ere zuraren egoera hobetzeko 2 urteko epe eman diote beren buruari. Kanpina martxan jartzeko 80.000 euroko inbertsioa egingen dute bi bazkideek eta hurrengo



14 bungalow ditu kanpinak.

urteetan 120.000 euro gehiago jarriko dituzte, beti ere, balio erantsia eman nahian. "Ea uda ongi pasatzen dugun eta irailean kontserba-

zio plana egingen dugu" azaldu digu Vicente. Etxarriko kanpinaz galdetuta, "eguraldiatik %40ko jaitziera izan dugu". +www.guaixe.net

Irurtzun

Langile ohiek Inasaren alde bustitzeko eskatu dute

Bihar, larunbata, 12:00etan Inasako atetik abiatuko da manifestazioa. Plazan, mosaiko handi bat eginez, bukatuko da

Ostiralean ezagutu zuten Inasako langile ohiek inbertitzaile ingelesak lantegia eskuratzeko egindako proposamena. Izan ere, duela bi aste ko bisitan negozio aukera ikusi eta enpresa eskuratzeko erabaki du. Zorren zati handiago bat bere gain hartu eta lantegia martxan jartzeko inbertsioa egingen luke.

Langile ohien artean poz eta kezka sentipen nahasiak sortu ziren. Poza Fernando Carrionek esan zigun moduan, "proposamen serioa delako eta aukera bat dagoelako". Eta kezka, egitasmoa gauzatzea zaila delako. "Baina horren alde borrokatzea besterik ez dugu" gaineratu du Carrionek.

Proposamenaren berri izan bezain laster Inasako langile ohiek Merkataritza-arloko epailearen-



Udalen eta gizarte, kirol eta sindikal arloko eragileen babesa dute langile ohiek.

gana jo zuten eta enpresako makinariaren salmentako betearazte- autoa zuzentzeko indar gabe uzte-

ko erabakia luzatzea eskatu zuten. Izan ere, 15 eguneko epea gaur despeditzen da. Halakorik gertatuko

ez balitz astelehenetik aurrera duela bi aste bezala egonen lirake langileak. Hartzekodunen lehiaketako epaileak eta administratzaileak hartu beharko dute erabakia.

Eskaerak

Inasa desegiteko arriskua oraindik dagoenez, langile ohiek Nafarroako Gobernuari eta hartzekodunen lehiaketako administratzaileari konponbidearen alde bustitzeko eskatu diete. Heldu den astean haiekin biltzekoak dira langile ohiak. Bestalde, Baikapi jarrera aldatzeko eskaera egin zioten.

Arakil

Euskarazko udako ludoteka

Arakilgo Udalak ibarreko haurrendako eskaintza du garilaren 16tik agorriaren 23ra arte: udaleku irekiak. 3 eta 10 urte bitarteko arakildarrek eman dezakete izena udako udaleku horietan. Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, 10:00etatik 13:30etara, eta asteazkenetan, 12:00etatik 20:00etara, haurren makina bat jardueraz gozatzeko aukera izanen dute (tailerrak, eskulana, jolasak, irteerak, txangoak, dantzak, antzerkia, sukaldaritza, historia eta herriak...).

Izena ematen duten haurren herrietan egingen da ludoteka. Saio batzuk Irurtzunen izanen dira eta

asteazkenetan ere txangoak egiteko aukera izanen da. Txikienez Olaia Beroiz arduratuko da eta kokorrenez Imanol Irurtzun. Arakilen erroldatuek 30 € ordaindu beharko dute eta ez daudenek 40.

Bestalde, udalak lan poltsa bat osatuko du. Erroldatuta dauden arakildarrek haien curriculum aurkez dezakete udaletxean edo ayuntamiento@arakil.inflocal.org e-posta helbidean. Udalak lan poltsa osatuko du eta haren berri Sakanako enpresen artean zabalduko du. Lanpostu eta ikastaro eskaintzaren berri era emanen die udalak izena eman dutenei.

Arakil / Irurtzun

Larraun ibaiaren bazterrak garbitzeko deialdia

Larunbatean, 10:00etan Irurtzungo Matxain jatetxeko aparkalekutik

Bi udalerrriak lotzen dituen oinezkoen ibilbideak zubi bidez zeharkatzen du Larraun ibaia. Haren bazterrak garbitzeko hitzordua zabaldu dute bi udalek larunbaterako. 10:00etan bildu ondoren, ibilbidean barna ibaira joanen dira. Boluntarioei galtza luzeekin joatea gomendatu diete eta haurren joaten badira, helduren bat haien arduradun egin behar dute. Lan tresnarik ez dute eraman

Herri bazkaria Etxeberrin

Gaur 15:00etan despeditzen da izena emateko epea. Arakil eta Irurtzungo udaletxeetara jo edo hara hotsegin (948 500 051 edo 948 500 101) bestela ayuntamiento@arakil.inflocal.org e-postara idatziz.

beharko, eskularru, zabor poltsak eta bestelakoak antolakun-



Gaztetxoak ibaian. ARTXIBOA

tzak emanen baitie. Baita gosari goxoa ere.

Bi udalekin batera, Nafarroako Gobernuak eta Crana fundazioak antolatu dute ibai garbiketa, LaCaixaren gizarte ekintzaren laguntzaz.

MAITE
arrandegia
Arrain freskoak, egunero
Hegaluzea eta amuko legatza

948 467 385 • 607 973458
La Paz 3 • ALTSASU

FRONTOIKO TABERNA
Plater konbinatuak
Bazkariak eta afariak enkarguz

948 469 138
ERKUDEN 4 • ALTSASU

Redón
948 562 452 ALTSASU

Igoa
arraindegia

948 460 111 • Arkuetabide kalea • Etxorri Arantz

>> Etxarri Aranatz

Herri galdeketa egiteko asmoa berretsi dute

Nafarroako Gobernuari, Foru Legeak agindu bezala, herri-galdeketa eskaera tramitera onartu dezala eskatu diote

Etxarri Aranazko Udala eta Etxarri 2012+1 ekimenak, makina bat etxarriarren babesaz, berretsi dute herri-galdeketa egiteko eskaerarekin aurrera segitzen dutela. Herri-tarrek honako galdera erantzutea nahi dute: Etxarri-Aranatz Euskal Herriko udalerrri modura Europako estatu independente berri baten barnean sartzearekin ados al zaude? Udalak gehiengo osoz hartu zuen erabakia.

Galdeketerarako Nafarroako araudia segituz, sinadura bildu ziren Etxarri Aranatz, baina Nafarroako Gobernuak legea bete gabe, udal akordioa bertan behe-uzteko eskatu zuela salatu zuten ostiralean. Foru administrazioaren egiteko bakarra da Espainiako Gobernuari dokumentazioa bidaltzea, baimen eskaera egiteko eta haren erantzuna udalari jakinarazi dio.

Beraz, "Nafarroako Gobernuak ez du inolako eskumenik herri-galdeketa ez baimentzeko ez ukatze-

ko" esan zuten udaletik. Horrekin batera, salatu zuten Barcinaren kabineteak Etxarri Aranazko Udalaren osoko bilkura bertan uzteko eskumenik ez duela eta hori udalak bakarrik duela nabarmendu zuten. Udaletik,aldi berean, salatu zuten "Barcinak eta bere alderdiak, berriz ere, boterea euren alderdikeria eta inposaketa ideologikoa gauzatzeko erabili dute".

Ekimenetik

Etxarri 2012+1 herri ekimenetik gogora ekarri zuten herri galdeketa sustatu zutelara, "aldarrikapen prepolitiko bat delako, oinarri demokratiko bat sortzearen aldekoa eta sentsibilitate guztien topaleku". Ekimeneko kideek gaineratu zuten, galdeketa "erabakitzeko eskubidearen defentsa jardun demokratikoa dela". Eta herri-tarrei bere etorkizuna erabakitzeko hitza ematea baino demokratikogorik ez dagoela adierazi zuten. Erabakitzeko eskubidearen aldeko atxikimendu pertsonal eta taldekakoak metatuz eta antolatuz jarraituko zutelara gaineratu zuten.



Udaleko eta ekimeneko kideek eman zuten prentsaurrekoa, alkate ohi eta etxarriarrez lagunduta.

Gobernuak udalaren galdeketa erabakia auzitegira eramanen du

Nafarroako Gobernuak jakinarazi du administrazioarekiko auzien epaitegira eramanen duela Etxarri Aranazko Udalak maiatzaren 10ean hartutako erabakia, "independentziaren inguruan toki-eremuko herri-kontsulta bat egitearen aurka". Aurretik, maiatzaren 23an, Nafarroako Gobernuak Etxarri-Aranazko Udalari eskaera egin zion hamar eguneko epean udal batza hura baliogabe utz zezan. "Epea igarota, eta Nafarroako Gobernuak egindako eskaeren aurrean Etxarri Aranazko Udalak erantzunik ez ematean, Gobernuak jarduketara hori Administrazioarekiko auzien eskumenaren eskutan jartzea erabaki du". Foru administrazioetik argudiatu dutenez, "herri-kontsulta hori inolako toki-eskumenarekin bat ez

erortzeaz gain, Estatuarena soilik den eskumen bat urratuko zuela". Nafarroako Gobernuak ustedeialdiak ordenamendu juridikoaren aurka elementuak dituela, Etxarri-Aranatz Euskal Herriaren barnean dagoela adieraztea, esaterako, edo "Europako estatu independente berri" baten barnean sartzeko aipamena, ez duena identifikatzen eta, izatekotan, Magna Cartaren 2. artikuluan jasotako Espainiako Nazioaren unitate-printzipioaren aurka doana.

etortzeaz gain, Estatuarena soilik den eskumen bat urratuko zuela". Nafarroako Gobernuak ustedeialdiak ordenamendu juridikoaren aurka elementuak dituela, Etxarri-Aranatz Euskal Herriaren barnean dagoela adieraztea, esaterako, edo "Europako estatu independente berri" baten barnean sartzeko aipamena, ez duena identifikatzen eta, izatekotan, Magna Cartaren 2. artikuluan jasotako Espainiako Nazioaren unitate-printzipioaren aurka doana.

>> Arakil / Irurtzun

Mugarri bat Aixita gazteluarendako

Bihar, larunbata, 17:30ean Etxeberrin

Nafarroako erreinua defendatu zuten gazteluak mugarrizko ekimenak etapa berria izanen du bihar, Aixitako gaztelua zena mugarrizko baita. 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenak sustatuta jarri dira mugarririk erreinu independentearen defentsa sistema osatzen zuten gotorlekue-tan, edo haiek zeuden tokietan. Sakan Orarregi, Uharte Arakil, Irurita eta Ziordikogaztelutan mugarririk jarri ondoren, bihar Aixitan.

Herri bazkaria

Gaur 15:00etara izena emateko epea. Arakil eta Irurtzongo udaletxeetara jo edo hara hotsegin: 948 500 051 edo 948 500 101.

>> Etxarri Aranatz

Azken hamarkadetakoa errepresio gertaerak bilduko ditu Altsasu Memoriak

Gazte batzuen kezkatik sortu da talde berria. Altsasun bizi izandako gertaera errepresiboak bilduko beharra sumatu zuten. 1936ko estatu golpearen ondorengo gertaerak jaso zituztenengana jo zuten eta, hala, gazteek eta helduek eratu dute Altsasu-Memoria. Guztien artean dokumentazio, datu eta kontakizun bilketa hasi dute, "Altsasuk bere benetako memoria ezagutzeko ezinbestekoa baita". Taldeak parte-hartzeari ateak zabaldu dizkio eta nahi duen guztiarendako ateak zabalik dituzte. Bildutakoa ondoren hainbat erataria argitaratuko dute.

Estatu kolpearen inguruko datu ugari daudenez (ondorioak,

langile bataioiak...), 1975etik gaur egun arteko aldiari zentratuko dira. "Gertaera errepresioekin batera, dokumentazio kronologikoa osatuko da, hamarkada bakoitzean zeuden gertaera politiko eta kulturekin, txosten hutsetik harago, Altsasu bera bezain bizia den zerbait". Politika, gizarte, kultura eta hizkuntza arloetan izandako errepresio gertaerei erreparatuko diete taldekideek.

Helburuak

Ostiralean azaldu zuten, "herri gisa duen nortasuna ezabatzeko, Euskal Herriko gainontzeko herrien modura Altsasuk Espainia eta Frantziako estatuen errepresio gogorra jasan du". Gehitu



Gazte jende ugari bildu zen aurkezpenean.

zutenez, "Errepresio ekintzen bidez lan politikoa inolako esku-hartzerik ezin dugu onartu herri libre bat eraiki nahi badugu".

Bestalde, "biktimen gehiengo bat anulatzeko" erakunde ofizialek, zenbait erakunde politikok eta hedabideek errepresioaren arlo ugariak ezabatzen eta desitxuratzten saiatu zirela salatu zuten.

Harremanetarako

Taldeak aurki web orria izanen badu ere, bitartean losu Imaz Primekin jarri daitezke harremanetan interesatuak.

Adierazi zuten, "herriak pairatu duena ezagutu beharra du, etorkizunari ilusioz begiratzeko". Eta benetako arduradunak zigorgabe gelditzea saihestu nahi lukete.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

GANUZA
SUKALDEAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Elektragailuak
GANUZA
GARANTIAREKIN
Tel.: 948 460 203
faxes: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

FELIX OTEGI
TAXIA
9 lagunendako
tokia
660 342 071
IRURTZUN

asi
arreta eta orientazio
psikologikorako zentrua
Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA
Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
948 467 354 - 669 367 422

NEREA
ILEPAINDEGIA
NEREA BAKAIKOA.
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaldea)
LAKUNTZA. TFN: 948 576 331

» Altsasu

Gobernuak Lazaro Echeverriako gatazkan esku hartzeko eskatu du Parlamentuak

“Egungo blokeo egoera bideratu dezakeen konponbide bat bilatzeko, Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu Lazaro Echeverriako lan gatazkan parte hartze aktiboa izan dezala”. Horixe erabaki zuen atzo aho batez Nafarroko Parlamentuko Ekonomia, Ogasun,

Industria eta Enplegu batzordeak. Jakina denez, langileak ia 4 hilabete dauden mugagabeko greban, enpresak 6 langile kaleratu eta lan baldintzak nabarmen aldatu nahi dituelako. Parlamentariak enpresaren jarrera zalantzan jarri zuten, ez baitzuen enplegu erregulazio

espedienterik aurkeztu “halako neurri zorrotzak hartzeko” eta ez delako adiskidetzeko-ekitaldietara aurkeztu. Horrek, parlamentariaren iritziz “horrela eskualdean garrantzitsua den enpresa baten etorkizuna argitzeko beharrezko elkarrizketari atea itxi zaio”.



Gaur 115 egun egin dituzte greban langileek.

» Olatzagutia

CPVko espedientearen negoziazioa gaur hasiko da

Gaur lan uztera deitu ditu langileak ELAK. 18:30ean Iruñean.

Cementos Portland Valderrivaseko (CPV) zazpi porlandegietako ordezkariak atzo Madrilan bildu ziren, zuzendaritzak aurkeztu duen Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE) negoziatzeko. Garilaren 19an despidituko da negoziazio epea. Olatziko porlandegiko enpresa batzordeko (UGTk 4, ELAk 3 eta CCOOk 2) buru Javier Lekunberrik aitortu digunez, “hasierako planteamendua kezagarria da”.

Atzo zuzendaritzari espediente berraztertze eskatuko zioten, hainbestelangeri eta hainatal

garrantzitsuri ezeragiteko. “Akats estrategikoa eta etorkizuneko alizateke”, ziurtatu du Lekunberrik. Horregatik, negoziatioetan lanpostuen galera ekarriko ez duten konponbideen alde egingen dute UGTkoek: aldi baterako kontratuak eteteke espedientea, malgutasuna...

ELAko Aitor Irigoienek esan digunez, negoziatioa Olatzagutian egiteko eskaera eramanen dute Madrilan. Lantegi bakoitzaren errealitatea ezberdina denez lan zentro bakoitzean negoziatzea aldarrikatu dute ELAkoek, “espedientearen eragina txikitze konponbide zehatzak emateko”.



Herenegun taldearen 7 porlandegietako ateetan kontzentrazioak deitu zituzten UGTk eta CCOOk. ELAk ere kontzentrazioarekin bat egin zuen.

Horretaz gain, Irigoienek porlandegiarendako bideragarritasun

plana eskatu du. “Udazkenean egingen hemen lantegiaren berre-

gituraketa 28 langile kaleratzean” azaldu du Irigoienek. ELA tik ziurtatu dute ikerketa, garapen eta berrikuntza departamenturik gabe etorkizunik ez dagoela.

Protestak

ELAk grebara deitu ditu gaur porlandegiko langileak. 39 kaleratzen ondoren gelditzen diren langileei eraginen dieten erregulazioak, soldata jaitsierak eta beste etorriko direlako zuzendaritzaren erabakiak plantilla guztiari eragiten diola uste dute ELAko kideek eta zuzendaritzak aurkeztutakoa “adabakitzat” jo dute.

SAKANA

Errausketa proiektuaren lanen interes orokorrari, helegitea

Olatzagutiko porlandegian errausitu ahal izateko Udalez Gaiendiko Proiektu Sektorialeko lanak interes orokorreko izendatu zituen Nafarroako Gobernuak. Erabaki horri helegitea jarri dio 3 Mugak Batera (3MB) plataformak, dekretuaren deuseztasuna edo subsidiarioriki bere baliogabetasuna eskatuz. Izan ere, “izendapen hori, udal araudiak eta egin beharreko lanen eta azken finean Portland-en hondakin kudeaketa jardueraren berriaren inguruko bestelako edozein kontrol neurri baztertzeko ahalegin bidegabearen amaiera besterik ez da”.

3MB-tik adierazi dute porlandegian egin beharreko berrikuntzak interes orokorreko izendatzea



Errausketak sortu ditzakeen gaitzak salatzen 3MBk egindako protesta.

“gezurretan oinarritzen” dela. Lanpostuen mantentzea zen enpresaren argudioetako bat “eta denok ikusi dugu nola izendapenak jaso ondoren langileak kaleratu dituen

eta zementu-fabrikako ia langilearen erdia eta harrobietako gehiena kaleratzeko asmoa iragarri duen”.

Plataformako kideen iritziz, “ez

da onargarria Portland-ek berriz ere Nafarroako Gobernuari engainatu nahi izatea, beste fabrikekiko berak aipatzen duen usteko lehiakortasun hori lortu nahiaren azpian, errausketa eta kaleratze gehiago besterik ez dagoela ezkutatzuz”.

3MB-ko kideen ustez interes orokorreko izendapena “tartean dagoen interes guztien azterketa sakona egin ondorengo erabakia izan beharko litzateke, batez ere ondorioak jasango dituztenen interesena”. Ibarreko eragile eta erakundeen iritzia entzun beharko liritekeela uste dute 3MB-koek. Portlanden errausketaren kasuan gobernuak “enpresa pribatu baten interes ekonomikoak soilik” aintzat hartu dituela salatu dute.

Haurrak Aralarko aingeru aurrean

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak garilaren 21erako antolatu du adin guztietako haurrak santutegiko aingeruari aurkezteko ekitaldia. Ohi bezala, igandeko meza nagusia izanen da, 12:30ean. Kofradiako kideak elizkizun berezi horri ahalik eta handitasun gehien emanen diote. Elizkizunaren barruan haurrak bedeinkatu kodituzte eta akaberan aingerua gurtzeko aukera izanen dute.

Izena emateko

Santutegiko sakristian izena emateko papertxoak egonendira. Bestela, hots egin 609 406 780 edo idatzibasanoa.josemari@gmail.com e-postara (Jose Mari).

m u e b l e
ARKUPE
 a l t z a r i a k

Uztailean MERKEALDIA

Solana, 19 ALTSASU 948 563 753 www.mueblesarkupe.com

%50 edo GEHIAGO

3 m-ko egongela (1.798€) + besaulkia (3 + 2) (1.235€) + mahaia (298€) + jangelako mahaia + 4 aulki (528€) + kuadroa (220€) + zutikako lanpara (134€) = PSP: 4.212€. Deskontuarekin: 1.900€. Eramateko prest!

Bakaiku

Errausketaren kontra dantza eta kanta

Festetan eginen den Flashmobean parte hartzea deitu dituzte bakaikuarrek eta sakandarrek

Herritarren osasunaren alde eta errausketaren kontra kantu koreografiatua, flashmoba, izanen da Bakaikuko aurteko festetako berritasuna. Hartu nahi dutarnas ozenki abestuz, dantzatzuz, osasunaren alde egin eta Sakanan jarri nahi diguten errausketa proiektua gelditzea exijituko dute.

Dagoeneko aukeratu dute kantua: Lady Gagaren bat izanen da eta bakaikuarrek beraiek jarri diote



Flashmobean parte hartzea deitzeko lehen mugimenduak. UTZITAKOIA

letra. Guztia behar bezala prestatu ahal izateko, hala ere, asko falta

da eta bakaikuarren eta sakandarren parte hartzea eskatu dute.

Egitekoak

Dantzatzeko den kantua Bakaikuko abesbatzak kantatuko du. Baina behar bezala gelditzeko ahots gehiago behar dituzte eta, horregatik, deia luzatu diete abesbatzan kantatu nahi duten guztiei ostira-lean, 21:30ean, udaletxera joateko. Kantua ikasitakoan Jonek grabatu eta nahastuko du.

Koreografia prestatzeko lanak ere hurrengo bi asteetan aurreratu nahi dituzte Bakaikun. Hura zehaztu ondoren, garilaren 8tik aurrera, astelehen, asteazken, osti-

Harremanetarako

Flashmobean parte hartu nahi dutenek osasuntsu.bizi.nahi.dugu@gmail.com jodezakete.

ral eta larunbatetan entseguak egiteko herriko hainbat tokitan bilduko dira. Sakandarrei ere deia luzatu dietenez, beste herrietan koreografiak entseatzeko datak eta tokiak zehaztuko dituzte bakaikuarrek. Koreografiaren bideoa ere sareratu dute.

102 sinadura

Larunbatean maiatza jaso zuten herrian. Guraso talde batek estatu estatuko fiskal nagusiaren aurrean Nafarroako Gobernu salatzeko babes sinadurak jaso zituzten.

SAKANA

Galderak utzi ditu goi tentsioko lineari buruzko saioak

Autopista Elektrikorik Ez! plataformaren iritziz gobernuak "isiltasun konplizetik ia prebarikaziora pasatu da"

Goi tentsioko linearen egitasmoa azaltzeko atzo Altsasura etorri ziren REEko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak. Azken horietako batek azaldu zuen Nafarroako Gobernuak Deikaztelu eta Itxaso arteko linearen alde dagoela. "Hairez errotek sortutako argindarra ateratzeko beharrezkoa da egun dugun sarea indartzea". Espainiako

Gobernuak argindar sarearen planifikazioan foru administrazioak linea hori mantentzeko eskaera egin duela argituzuen Morcillok. Hizlariak egindako aurkezpenak aurki gobernuaren web orrian jarriko dituzte, baita saio bakoitzeko akta ere.

Galderak

50 pertsonatik gora bildu zituen informazio saioak, gehienak plataformako kideak. Hizlariak pro-

testengatik saioa eteteko mehatxua egin ondoren plataformako kideek aretoa utzi eta kanpo aldean prentsurrekoa eman zuten. Gobernu herritarrek informatzera etorri beharrean argindar proiektua justifikatzera etorri zela salatu zuten. Egitasmoaren aurka dauden 216 toki erakundeen ordezkariak biltzeko eskaera egin ondoren haiek ez biltzea salatu zuten. "Zein konfiantza izan dezakegu halako gobernuarengan?"

Plataformako kideek zalantzan jarri zituzten gobernuko teknikariek egitasmoaren inpaktuari buruz prestatzen ari diren txostenak. "Zer pentsa daiteke haien buruak hura iragartzeko ekitalditan parte hartzen badute?" Sakanan dauden 220 kV-eko lineako bat kenduko zela aurreratuzuen hasieran REE, "baina udalekin egindako bileretan zergatik esan zen halakorik ezin zela zehaztu planifikazio berria onartu arte?"

Horrek kaltetutako herritarrek ez ote dituen "erabateko defentsa faltan" utzi galdetu zuten. Nafarroako Gobernuak halako saioekin enpresa pribatu bati zergatik egiten dion lan zikina ere galdetu zuten plataformako kideek. "Egitasmoa duela bi urte aurkeztu zen, non egon zarete orain arte?" Bestalde, REE egitasmoa argudiatzeko azken urteetan argudioak aldatuz joan dela salatu zuten.

+www.guaixe.net

Etxarri Aranatz

LipMugiaren eguna



Makina bat etxarriarrek koreografiarekin bat eginen dute. UTZITAKOIA

Bihar toma bakarreen bideoklipa grabatuko da

Iritsi da bideoklip erraldoia grabatzeko eguna, Lipmugi eguna. Lip-

dub modukoa denez, dantzan jarriko dira etxarriarrek kamara aurrean. Eta horregatik da mugiere. Baita herri mugimenduen isla izan

Koreografia

<http://vimeo.com/68328080>

Egitaraua

10:00etan Kultur etxean elkartu.
10:30ean Bideoklipa grabatzen hasi.
11:30ean Auzatea.
12:00etan Koreografia dantzan ikasten hasi.
14:00etan akabera.
19:30ean Gaztetxean grabatutakoaren aurkezpen proiektio festa.

nahi duelako; antolatzaileek herria aktibatu nahi dutelako. Etxarriko arlo ugarietako taldeak gonbidatuak izan dira biharko Lipmugian parte hartzera, "egun alai, parte-hartzaile eta polita" pasatzeko. Baita "jendearen arteko harremanak hobetu eta proiektu komunetan aritzeko aukera" sustatzeko.

Ziordia

Batuekorako bidean berriro

Ziordiko Gazte Asanbladak deituta herritar mordo batek eguraldiari aurre egin eta domekan Batueko iturrira joan ziren, baita ura edan ere. Garai batean iturri horren inguruan ziordiarrekin batera olaztiarrak, ameskuarrak eta lautadako jendea biltzen ziren. Ohitura hori berritzeko lehen urratsa izan zen San Juan bezperakoa.



Batuekora igo ziren ziordiarrek. UTZITAKOIA

Arbizu 1813-2013
herri ekimenaren partez,
mila esker laguntzaileei eta zorionak parte hartu duzuen guztioi.
Gora herria!

ARBIZU
1813
2013

Kirola >>

TRIATLOIA

LEKEITIO: 500 triatleta baino gehiago aritu ziren Lekeitioko Triatloian. Azkarrena Ryan Baillie australiarra izan zen (1:01:09).

Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate 159.a izan zen (1:15:09) eta Juntxo Azurmendi 235.a (1:19:33).

Frontenisa

Nor dira Sakanako jokalaririk onenak?

VI. SAKANAKO EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALAK JOKATUKO DIRA GAUR. OLAZTIK FINAL HANDIAK HARTUKO DITU, ETA ETXARRI ARANATZEK 3. ETA 4. POSTUETAKO FINALAK

Apirilaren erdialdean abiatu zen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Etxarri Aranazko Gure Pilota klubaren eta Olaztiko Pala arduradunen laguntzarekin antolatutako VI. Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketa. 18 bikote aritu dira lehian, 9 lehen mailan eta beste horrenbeste bigarren mailan, eta aurreko asteburuan finalerdiak jokatu eta gero, gaur, ostiralean, final handiak jokatu dira.

Finalerdietan, 2. mailan, Ane eta Uxuek 25-20 irabazi zieten Uxue eta Iratiri eta Andreak eta Izarrek 25-10 hartu zituzten menpean Maider eta Leonor. Lehen mailan Yanira Aristorenak eta Maitek 25-6 irabazi zieten Edurneri eta Vanesari eta Mireiak eta Elenak 11 tantotan utzi zituzten Ruth eta Yolanda.

Gaurko finalak oso estuak aurreikusten dira. Puntako emakume palistak dira sailkatu direnak, tartean sakandarrak, eta goi mailako partidak espero dira. Hor-taz, aukera polita da gaurkoan Etxarrira eta Olaztira hurbiltzera. Ea txapelak Sakanan gelditzen diren.



Aristorena eta Ruiz finalera sailkatu dira.

Emakumeen Frontenis Txapelketako finalak

3. eta 4. postuen finalak, Etxarri Aranatzen (gaur, ostiralean)

2. maila: Uxue-Irati / Maider-Leonor (17:00etan)

1. maila: Edurne-Vanesa / Ruth-Yolanda (17:30ean)

Final handiak, Olaztin (gaur, ostiralean)

2. maila: Ane-Uxue / Andrea-Izar (18:30ean)

1. maila: Yanira-Maite / Mireia-Elena (19:15ean)

20:00etan: Sari banaketa

Futbola

IZURDIAGAKO FUTBOL 8 TXAPELKETA

Isotopos edo Lacturale Itxasperri, nork jantziko du txapela?

Izurdiagako Futbol 8 Txapelketako final handia bihar, larunbatean, San Pedro egunean jokatu da; 19:00etan. Arakilgo Rajatabla eta Irurtzungo Guanlarrak iritsi dira finalera. Lehia estua aurreikusten da, bizilagunen artekoa, derby polita. Finala baino lehen kimuen mailako futbol partida antolatu dute izurdiagarrek. Lekunberriko Beti Kozkor taldeak Burlatako Ermita-berriren kontra jokatu du.

Bestalde, aurreko asteburuan 3. eta 4. postuak zehazteko partida jokatu zen, eta Irurtzungo Guanlarrak



Rajatabla Toldos Berriainz 4. postuan sailkatu da. MIGEL ANGEL LAPLANA

4-1 hartu zuen menpean Arakilgo Rajatabla Toldos Berriainz. Aurretik, emakumezkoen futbol

partida hartu zuen Izurdiagak eta Toldos Berriainzek 3-0 hartu zuen menpean Kirol Sport Orkoien.



ARETO FUTBOLEKO ELKARTE NAZIONALEKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Bar Koxka Estatuko seigarrena

Estatuko Areto Futboleko Elkarte Nazionalak (ANFS) Espainiako Kluben Arteko Areto Futbol Txapelketa antolatu du. Altsasuko Bar Koxka taldeak aipatu txapelketarako aurretikoa irabazi zuen Miranda de Ebron, txapelketarako sailkatuz, Estatuko beste 20 talderekin batera. Valdepeñasen asteburuan jokatutako txapelketan, hainbat multzotan banatu zituzten taldeak. Bar Koxkak Masegosa Frutas de Bolaños (Ciudad Real) taldea izan zuen

aurkari. Altsasuarrak, izugarri sufrituz, 4-2 gailendu ziren, Jorge (2), Medina eta Raul Ericeren golei esker. Bigarren partidatan 3-0 irabazi zieten Café del Salón de Salamanca, bukaerako fasera sailkatuz.

Final laurdenetan Alcalá de Henareseko El Decaren kontra aritu zen Bar Koxka, partida oso gogorrean. Bukaerarako 7 minuturen faltan gola sartu zuen El Decak. Bar Koxkak berdintzeko aukera izan zuen, baina hiru jokaldik zurtoine-

an bukatu zuten. Minutu baten faltan 2-0koa sartu zuen El Decak. "Euren jokoa zikina izan zen sarritan. Guk partida irabazi ahal izan genuen, baina zortea ez genuen alde izan. Hala ere txapelketan 6. ak izan gara eta hori lorpen handia da" adierazi du Bar Koxkako Jose Ramonek.

www.anfs.es

Txapelketako informazio guztia.

iker kirolak

Intxaurren 14 · 948 564 469 · Altsasu



2x1

%20

%30

%40

Aizkora

Lehendabiziko puntuak Nazabalendako

Igandean Aizkolari Txapelduen Ligako lehendabiziko jardunaldia jokatu zen Bilbon. Aipatu ligan Urrezko Aizkorako txapelketan lehen sei postutan sailkatutako aizkolariak lehiatzen ari dira, urrezko txapelduen Floren Nazabal tartean. Larunbatean Juanjo Lopez Azpilikueta izan behar zuen aurkari Nazabalek, baina Lezaungoak ezin izan zuen aritu eta bere ordezkari Jon Rekondo lehiatu zen. Sei lan egin behar zituzten, guztira 9 enbor erdibituz, eta etxarriarra izan zen txapeldua (18:34), Rekondori minutu bat baino gutxiagoko tartea atereaz (19:14). Ligan bere lehendabiziko 2 puntuak eskuratu ditu Nazabalek.

Pilota

Olaztikoko XLII. San Migel Pilota txapelketa

Olaztikoko San Migel elkarreketako Sute-gik antolatutako pilota txapelketaren barruan jardunaldi polita jokatu da gaur, Olaztikoko pilotalekuan.

Asteburuko jardunaldia

Gaur, ostiralean, 20:30ean

1. maila: Murgiondo-Agirre / Senar-Gebara

2. maila: Beñat-Aritz / Mendiluze-Vicario

3. maila: Flores-Montesinos / Iñaki-Migel

Afizionatuak: Urbietta-Telletxea / Azpiri-Landaburu

Irristaketa



La Puente, Chamorro eta Villalobos oso txukun Espainiakoan

Asteburuan Zirkuituko Espainiako Irristaketa Txapelketak jokatu dira gazteen eta haurren mailan eta Espainiako Irristaketa Kopa kimuen mailan, A Coruña. Guztira 146 irristalari aritu ziren, eta nahiz eta eguraldiak ez lagundu, lan polita egin zuten Sakana Irristaketa Taldeko 3 irristalariak. Aurreikusitako baina emaitza hobekak lortu zituzten. Anne La Puente kimua 33 irristalarien artean 11 eta 18 postuen artean sailkatu zen, proba ezberdinetan. Ander Chamorro haurra 46 irristalarien artean 18-21 postuen artean sailkatu zen, eta Unai Villalobos haurra 46 irristalarien artean 4.a, 5.a eta 6.a izan zen, aritu zen hiru probetan.

Automobilismoa

4x4 erresistentzia trialala, estreinekoz, Arbizun

SAKANA 4X4K ANTOLATUTA, BIHAR, LARUNBATEAN, 16:30EAN ARBIZUKO INDUSTRIALDEAN

Sakana 4x4 taldea nobedade batekin dator Arbizuko San Juanetara: 4x4 erresistentzia trialala. "Galizia aldean antolatu izan da, baina Euskal Herrian Arbizun lehendabiziko aldiz ikusi ahal izango da, bihar. Erresistentzia proba izango da, lasterketa. Orain arte ikusitakoarekin alderatuta entrenigarriagoa iruditzen zaigu" adierazi digu Sakana 4x4ko Jose Luis Lakuntza "Risitas"-ek.

Lasterketa formatua

Arbizuko industrialdean gauzatu da lasterketa, bihar, larunbatean, 16:30ean hasita. 20 pilotuk eman dute izena. Lauzprobost gune ezberdin prestatu beharrean, antolakuntzak 800 metro inguruko zirkuitu bat prestatu du, zuloz, aldapaz eta zailtasunez beteta, zabalagoa, autoek aurreratzeak



Rixitas prestatu berri duen autoarekin, 4x4 trial proba batean. SAKANA 4X4

egin ahal izateko. "Aldiko 3 toterreno aterako dira, eta 15 minututan nork buelta gehiago egiten dituen neurtuko dugu. Auto bakoitzak 2 manga jokatuko ditu, eta denbora onena egiten duena azkeneko mangarako sailkatuko da. Azkeneko mangarako 6 kotxe

azkarrenak sailkatuko dira eta ordu laurden batean denbora onena egiten duena izango da txapeldua" azaldu digu Risitasek.

Lau sakandar

Sakanako lau pilotuk eman dute izena: Iñigo Zelaia bakaikoarrak,

Ikusgarriagoa

Ezdago zalantzarik formatu berri honek zeresana emango duela. "Polita izango da. Orain arteko probetan auto bakoitzaren lana kronometratzen zen eta autoek arazoak izanez gero, ikusleek denbora asko pasatzen zuten zain. Orain dena azkarrago izango da, entretenitagoa, eta denboraguztitan autoak lehiari ikusteko aukera izango da" azaldu dute Sakana 4x4 taldek.

Josu urdiaindarrak, eta Iñaki eta Migel Angel dorrobarrek. Risitas bera zirkuitua probatzeko irrikitan dago, kotxe berria prestatu duela, baina lehiaketaz kanpo aterako da, antolatzaileak ezin baitira lehiatu. "Lasterketa honetan toterreno hobea izateak baino garrantzi handiagoa izango du pilotuaren trebetasunak. Autoa nola mugitzen duen, bihurgunak nola hartzen dituen, aldapak nola igo... horrek erabakiko du" aipatu du Risitasek, bihar Arbizuko ikuskizunaz gozatzea hurbiltzeko gonbitea eginez.

Motoziklismoa

Horrela, Alex!

MARIÑELARENAK ESPAINIAKO ABIADURA TXAPELKETAKO ALBACETEKO LASTERKETA IRABAZI ZUEN IGANDEAN. SAILKAPEN OROKORREAN ROMAN RAMOS LIDERRARENGATIK 19 PUNTURA DAGO

Espainiako Abiadura Txapelketa. 3. lasterketa, Albaceteko Zirkuituan. Moto 2

1. Alex Mariñelarena (Targobank Motorsport, Suter) 30:56,019
2. Roman Ramos (Team Stratos, Ariane) 30:58,464

Espainiako Abiadura Txapelketa. Moto 2. Sailkapen orokorra

1. Roman Ramos 85 puntu
2. Alex Mariñelarena 66 puntu

*3 lasterketa jokatu, beste 4 lasterketa gelditzen dira txapelketa despeditzeko

Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarrak (Targobank Motorsport, Suter) Espainiako Abiadura Txapelketan esateko asko duela erakutsi du. Albaceteko zirkuituak txapelketako 3. proba hartu zuen asteburuan eta Irurtzungo pilotua jaun eta jabe izan zen Moto 2 mailan, lasterketa irabaziz eta sailkapen orokorrean buru den Roman Ramosekin duen aldea txikituz. Egun, 15 puntuko aldea dute bi pilotuek. Oraindik 4 lasterketa geratzen dira eta emozioa pil-pilean dago.

Hasiera ona

Alex Mariñelarenak hasiera bikaina eman zion txapelketari, Montmelóko lehendabiziko lasterketa irabazi baitzuen, baina Aragoiko Motor Landen jokatuak bigarren proban arazoak izan zituen, 3. sailkatuz eta lidergoia Roman Ramosekin eskuratuz. Albaceten lasterketa ona egitea zuen buruan Mariñelarenak, eta lortu du.

Geroz eta gusturago

Entrenamendu ofizialetan egindako lanari esker 4. postutik hartu zuen irteera irurtzundarrak. 3,5 km-ko zirkuituari 20 itzuli eman behar zizkieten Moto 2 mailan irteera hartu zuten 33 pilotuek. "Zirkuitu honetan geroz eta gusturago nago, eta lasterketan nabarituiko zait" adierazi zuen bezperan. Lasterketa Ramos, Rivas, Syahrin eta Mariñelarenaren artean erabaki behar zela ikusten zen hasieratik, eta hala izan zen. Irurtzundarrak oso irteera ona egin zuen eta itzuliak aurrera joan ahala, postuak aurreratzen joan zen. 10. itzulian Dani Rivasek lurrean bukatu zuen eta horren ondotik Mariñelarena kokatu zen probaren buruan, Roman Ramos arerio nagusia aurreratuta. Proba meritua handiz irabazi zuen Mariñelarenak (30:56,019), Ramosi 2 segundoko aldea aterata (30:58,464). Hafizh Syahrin izan zen hirugarrena.

Esker oneko hitzak

Mariñelarenak Jordi Colacios taldeko mekanikoen nagusiari eta bere arrebari eskaini zien garai-pena. "Orain arte Albaceteko zirkuitua ez zaigu ongi joan eta horregatik ilusio berezia egiten dit garai-pen honek. Ostiraleko entrenamendu libreetatik lan asko egin dugu motorra hobetzeko, lasterketan lehiakorrago izan ahal izateko. Lasterketa gogorra izan da,



Alex Mariñelarena podiumean, garai-pena ospatzen. TARGOBANK MOTORSPORT

eta nahiz eta irteera parrillako lehen ilaratik ez atera, lehen 3 itzuliak pasa eta gero lasaitu egin naiz, buruan zegoen taldearekin bat egin ahal nuela ikusita. Azkeneko itzuliak, lehena nengoenean, nahiko gogorrak egin zaizkit ez nuelako erreferentziarik, baina irabaztea lortu dut eta oso kontentu nago. Babesleei euren laguntza eskertu

nahi diet eta nire taldeari bereziki, aurten sekulako lana egiten ari baitira. Berezikiko mekanikoen buru den Jordi Colacios dut buruan, egoera pertsonal delikatua bizi baitu" adierazi zuen Alex Mariñelarenak podiumean. Hurrengo lasterketa, 4.a, Albaceteko Zirkuituak hartuko du berriro, abuztuaren 8an.

HARATEGIA
Lopez de Goikortxea
CARNICERIA
Ondo pasa festetan!
948 562 157
Elizapzi 12 · Urdiain

Kaluxa
TABERNA · JATETXEA
Eguneko Menua
Enkarguzko bazkari eta afariak
Asteburuko Menu berezia
Plater konbinatuak
948 46 92 91
Kaluxa kalea, 3. · Urdiain

Txirrindularitza

Guerrero Tourrera

Bihar, larunbatean, hasiko da txirrindularitzako proba entzute-tsua: Frantziako Tourra. Txirrindulariek 21 etapa dituzte zain, guztira 3.479 km osatzen dutenak. Goi mendiko 6 etapa, mendi ertaineko 5, erlojupeko bat, taldekako beste erlojupeko bat eta 7 etapa lau. Horiek dira Tourreko zenbakiak. Faborito nagusiak Froome, Alberto Contador, Alejandro Valverde, Purito Rodriguez eta Cadel Evans dira, besteak beste. Aste honetan esprinterrendako proposak diren etapa azkarrak jokatu dira.

Euskaltel: soilik Guerrero

Azken urteetan ohikoa zen Euskaltel-Euskadiko txirrindulari sakandarrak Frantziako errepideetan barna lanean ikustea, baina aurten ez da horrela izango, lausakandarrak -Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Pablo Urtasun eta Jorge Azanza- Giroan aritu zirelako, Samuel Sanchezen ezkutarri lanetan. Eta ez dugu ukatuko txirrindulazaleoi pena pixkat ematen digula Tourrean sakandarrak ez ikustea. Euskaltekin ariko dena Oscar Guerrero kirol

Aralar Taldea, Euskadiko Txirrindularitza Txapelketako txapelduna



Igandean kadeteen proba jokatu zen Araian, I.L. San Pedro Saria, Euskadiko Txirrindularitza Txapelketa zena. Sakanako Aralar Txirrindulari Taldeak kadeteen lehen mailako taldekako txapelduna izan zen. Zorionak!

zuzendaria izango da, Alvaro Gonzalez de Galdeanorekin batera zuzendari lanak egiten. Altsasuarrendako lehendabiziko Tourra izango da (ikus Guaixeko 11 galderak).

Igor Gonzalez de Galdeano managerraren hitzetan talde

lارانaren helburua "etapa garai-pen bat" lortzea izango da, berriki hil den taldeko masajistako Rufino Murgiarieskaintzeko. Izan ere, talde laranja jota dago Murgiareren heriotzarengatik, bereziki sakandarrak, erlazio handia baitzuten berarekin.

Asteburuko lasterketak

Larunbatean juniorrek proba dute Lizarran, 17:00etan (81 km). Kadeteak igandean Undianon bilduko dira, Kadeteen Lacturale Trofeoan, 11:00etan (58,2 km). Afizionatuek, aldiz, lasterketa jokatu dute larunbatean Iruenen, 9:30ean (125,4 km).

Movistar: Erbiti eta Arrieta

Movistar Team taldeak Frantziako Tourrera eramango duen bederatzikotea aurkeztu du: Alejandro Valverde liderra dela, Nairo Quintana, Rui Costa, Andrey Amador, Jonathan Castroviejo, Ruben Plaza, Ivan Gutierrez, Jose Joaquin Rojas eta Hiriberriko Imanol Erbiti izango dira murtziarraren laguntzaileak. Uharte Arakilgo Jose Luis Arrieta eta Jose Luis Jaimerena izango dira zuzendariak. Tourreko helburuak "Valverderekin podiuma lortzea eta etapa garai-penak dira".

Justen urrezko domina

Espainiako Txirrindularitza Txapelketetan 23 urtez azpiko erlojupekoa irabazi zuen Rural Kutxa talde sakandarreko Alberto Justek.

Futbola

Urdiaingo Futbol 7 Txapelketarako izena ematea zabalik

Urdiainen Futbol 7 Txapelketa antolatuko da udarako. Txapelketa uztailearen 12an hasiko da eta abuztuaren 14an jokatuko da finala. Aipatu txapelketan izena emateko epea zabalik dago, uztailearen 6ra arte, ondoko mugikorretara deituta edo whatsapp-era mezua bidalita: 610 061 026 eta 608 408 762. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu. Txapelketa Urdiaingo Futbol Zelaian jokatuko da. Talde bakoitzak gehienez 12 jokalaririk izango ditu, eta partaideek 14 urtetik gora izan beharko dituzte. Txapelketa ongi antolatzen kobileragongoda uztailearen 8an, 20:00etan, Urdiaingo frontoian.

Taekwondo

Bargagaingo neskek, txapeldunak

Garesek Nafarroako Taekwondo Txapelketa hartu zuen larunbatean, 21 urtez azpiko eta promesen kategorietan. Nafarroako 12 klubetako 60 kirolaririk aritu ziren, Altsasuko Bargagaingo klubekoak tartean. Emakumezkoen 57-65 kiloetako mailan Altsasuko Bargagaingo neskek izan ziren txapeldunak.

Aretoko futbola

Xota B mailaz igo da: 2.B mailan ariko dira

Triman Navarra Xotako filiala, Xota B, mailaz igo da. Irurtzango klubeko filialak hurrengo denboraldian 2. B mailan jokatuko du. Juampe Arregiren zuzendaritzapean, ondoko jokalaririk dabilten Xota B mailan: Asier Diez eta Alvaro Fuertes atezainak, eta Iñaki Elizalde, Ivan Alves, Julen Esevenri, Saul Dávila, Igor Etxarri, Lucas Alvarez, Dani Saldise, Javier Saldise, Julen Luis, Jorge Zelai eta Andoni Carlosena jokalaririk.

XOTAK EMAKUMEEN ORBINA TALDEA DIRUZ LAGUNDUKO DU

Xota Fundazioak eta Orbina klubak hitzarmena sinatu dute. Txantrea-ko kluba Emakumeen Orbina taldearen kirol kudeaketaz arduratuko da soilik, eta kudeaketa ekonomikoa Xotaren esku geratuko da.

Mendi lasterketak

Unzurrunzaga 9.a Amurrio Traillean

Igandean 136 mendi korrikalaririk osatu zuten II. Amurrio Traillean (29 km). Lakuntza-Aralar lasterketa irabazi zuen Imanol Goñi nafarra izan zen garailea (2:16:40). Ander Unzurrunzaga etxarriarra 9.a iritsi zen helmugara (2:28:33), eta Jose Antonio Salgado altsasuarra 39.a (2:56:58). Igandean Camille Extreme lasterketa entzute-tsua jokatu da Isaban (32 km, 1.900 m desnibela).

Piragua-espeleologia

Udan piragua eta espeleologia Sakanan eta familian egiteko aukera

Piragua ikastaroa Arbizu edo Uharte Arakilgo ibaian burutuko da, eta espeleologia ikastaroa Urbasako Laminatutu kobazuloan, biak uztailearen 28an

Udako oporretan ez aspertzeko aukera paregabea eskaini du Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak: piragua ikastaroa eta espeleologia ikastaroa Sakanan bertan eta familian egiteko aukera. Aipatu bi ikastaroak uztailearen 28an burutuko dira, igandearrekin. Piragua ikastaroa goizeko 10:00etan egingen da, Arbizun edo Uharte Arakilen, ibaian. Aldiz, espeleologia ikastaroa Urbasako Laminatutu



Espeleologo bat Urbasan.

kobazuloan egingo da, 16:00etan.

Kaxkardi elkartereko monitorea

ek izango dute aipatu ikastaroa emateko ardura. Ikastaroa fami-

Izena emateko

Uztailearen 19ra arte, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Prezioa: 5 euro piragua ikastaroaketa 5 euro espeleologia ikastaroak.

lian edo bakarka egin daiteke, eta 8 urtetik aurrerako partaideak onartuko dira. Antolakuntzatik adierazi digutenez, piragua edo espeleologia ikastaroen artean aukeratu daiteke, edo nahi duenak biak egin ditzake.

Botxa

Tirillas txapeldun

Iratxo Botxa Txapelketa 203

Saillkapena

1.	Tximeleta	10 puntu
2.	Lirainak	8 puntu
3.	AHTrik Ez	6 puntu
4.	Tirillas	4 puntu
5.	Migel-Felix-Xabier	2 puntu
6.	Desesperados	0 puntu

Aurrefinalak

1.postua (Tximeleta) **8** / 4.postua (Tirillas) **15**
2.postua (Lirainak) **14** / 3. Postua (AHTrik Ez) **15**

Finalak

3. eta 4. Postuak: Lirainak **15** - Tximeleta **9**
Finala: Tirillas **15** - AHTrik Ez **12**

Botxa petanka antzeko joko tradizionala da, Irurtzango Iratxo elkarterean gogo biziz sustatzen dutena. Aurten 6 taldek jokatu dute maiztaren bukaeran hasi zen Iratxo Botxa Txapelketan eta sorpresak izan dira, izan ere Lirainak (Santos-Marian-Julen) eta Tximeleta (Pakita-Alizia-Josune) taldeek, faboritoez, ez zuten finalerako txartela lortu.

Sorpresa emanez, Tirillas (Mari-Jabi-Alfredo) eta AHTrik Ez (Florentino-Marivi-Mikel) taldeek jokatu zuten finala, eta Tirillas talde-



Iratxo Botxa Txapelketako sarituak. PATXI ALEGRE

koak gailendu ziren final handian, lehia oso estuan AHTrik Ez taldeari 15-12 irabazi eta gero. 3. eta 4. postua zehazteko finalean Lirainak

taldekoek 15-4 irabazi zieten Tximeleta taldekoei. Bukaeran sari ematea izan zen, eta irabazleek urdaiazpikoak jaso zituzten opari.

bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

Guaixe.eus

Kostatu zaigu, baina azkenean badugu prest .eus domeinua, euskararen lurraldearen marka munduaren aurrean. Urteetako prozesua. Eskari ezberdinak, akordioak saretu eta nazioarte mailako hainbat erakunderekin kudeaketak egin behar izan dira. Urtebete falta da oraindik mar txan jartzeko, baina hasi gara jada lehen prestaketekin.

Domeinubat internetenez dagauza makala. Izaera bat markatzen du, lurralde bat edo proiektu bat. .eus domeinuaren kasuan hauguztia agertzen da, euskararen lurraldea adierazteaz gain, lurralde hori duen domeinua ere badelako. Vicent Partalek "eskerrik asko ekitaldian" esan zuen bezala, orain arte existitu da "Territori puntcat" bat eta hemendik aurrera izango dugu "Territori punteus" bat. Munduaren aurrean agertzeko modu bat da, gure hizkuntza bisibilizatzeko bai, baina batez ere hemen herri bat dela ikustarazteko balio behar du. Lagun batek esaten zidan aurrekoan, Interneti dagokionez, hau independentzia aldarrikatzea bezalako delata. Munduaren aurrean ager zaitezke, beste herrialde bateko kidea zarelaren gabe.

Erronka ez da bukatu, ordea. Orain urtebete duguztia ordenatu, baldintzak hobe azaldu eta hainbat prozesu tekniko mar txan jartzeko. Milaka domeinu beharko dira proiektu errentagarria izandadin. Eta hemendik nire proposamena, guaixe.eus domeinu sortzeko, euskarazko komunikabideek ere badutela zeresana. Urkulluk esan zuen eusko jaurlaritza.eus egingo dutela, baina guk ere behar dugu sakana.eus edo, zergatik ez, navarra.es utzi eta nafarroa.eus domeinua mar txan jarri. Beharko dugu instituzioek ere euskarri "ofiziala" ematea, beharko dugu komunikabideekin darra ematea, beharko dugu euskalgintzaz gain beste-lako sektoreak inplikatzeari... eta beharko dugu herritarrek ere euren ekarpena egitea, komertzioetan, blog pertsonaletan, eta abar.

Honetarako, berriro ere, ezberdintasunen gaintik adostasunak beharko ditugu. Herri gisa pentsatu, herri gisa aritu eta herri gisa ekin. Ez da lelo hutsala, .eus lor tzeak demostratu duen bezala. Herri mugimendua, instituzioak, euskalgintzako sektore ofizial eta ez hain ofizialistak... denok batera egin dugu, beste hainbat lorpen izango genituzkeen lez. Gure esku dago, baita hori ere.

Munduko musikak gozagarri

Gaur, ostirala, 20:00etan Olatzagutiko Sutegei parkean. Euria egiten badu, kultur etxean

Sakanako kultur aniztasunaren isla gaur ikusgarri bihurtuko da eszenatokian. Musika adierazpen ugari gozatzeko aukera izanen da kontzertuan, eta emanaldiak sakandarrak elkar hobe ezagutzeko bidea emanen

du. Irurtzungo eta Etxarri Aranzako emanaldien ondoren, Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak antolatutako formatu honetako hirugarren kontzertua da.

Oholtza hainbat jatorritako musikariek partekatuko dute: Kituka Burundi, Irurtzungo Djembe taldea, Youssef Kejji eta Milder Ansa. Kontzertuak, beraz,



Sakanangauregun elkarren ondoren dauden hizkuntza ugariak entzuteko aukera emanen du. Musikaz aparte sakandar berriek

haien migratio prozesuaren testigantza emanen dituzte. Eta emanaldiak sorpresarako tartea ere emanen du.

Ranblak, izanen dira

Artiekalia! taldeak Etxarri Aranzako plaza sortzaileen erakusleio bihurtzeko asmoa zuen ostiralean. Eguraldiak laguntzen ez zuela ikusita bertan behera utzi zuten ekimena. Baina taldeak jakinarazi dutenez, plaza Ranblak bihurtzeko asmoa ez dute baztertu, "jende asko gelditu dalakoas parte hartzeko goguekin".



NEREA MAZKIARAN

Musika ikasketetan sakontzera



Aurreko astean jakin ziren musika kontserbatorioetarako sarbide proben emaitzak. Nahia Elorza (akordeoia) eta Imanol Lobo Yeregi (txistua) Iruñea eta Donostiako kontserbatorioetako probetara aurkeztu ziren eta bietan instrumentuko nota onena lortu zuten. Ekiñe Lumberasek (zeharkako txirula) Iruñean eta Gasteizen gaintu zituen probak, baina azken hirian jarraituko ditu musika ikasketak, Iruñean plaza gutxi baitzeuden. Atean ere ibarreko beste musikari batzuk gelditu dira, proba gaintu arren, plaza gutxi zeudelako. Ikasleen ahaleginarekin batera, Altsasuko Musika Eskolako irakasle eta zuzendariaren lanaren fruitu dira emaitzak.

Etxepare saria Mutuberria eta Bilbaorendako

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Nafarroako beste hainbatekin batera, antolatutako saria da Etxepare saria. Irudi eta testu labur osagarriak dituzten eta istorio bat kontatuko duten album sortzaileendako sariketa da. Epaimahaiak aurkeztutako 31 lanak aztertu ondoren Maite Mutuberria ilustratzaileak eta Leire Bilbao idazleak ondutako *Gerrak ez du izenik* albumak irabazi du. 5.000 euroko saria eta albuma Pamie-la etxearekin argitaratzeko aukera lortu dute.

Epaimahaikideen esanetan, "egileek ederki uztartu dituzte hitza eta irudia, sentimenak eta gertaerak, errealitatea eta fantasia, gerra ororen ezaugarriak aurrera ateraz: gosea, beldurra, tristura... Eta argazki errealez eta irudi marraztuez osaturiko planoak baliatu dira, hitzari arnasa eman eta kontrapuntu egiteko, bizi iraupenerako dei ozen bat osatuz, armoniaz beteriko album ilustratu honetan".



UTZITAKOIA

Uharteko zortziko sasoitsu

Berreskuratu zutela 25 urte bete zituen astelehenean Uharteko Arakilgo zortzikoak. Eta efemeridea dantzan baino ezin ospatu. 21 bikotek dantzatu zuten Mikaela Aldazek eta Jose Mari Beteluk berreskuratutako zortzikoak. Haiek Candida Bikondo, Petra Forteis eta Pakitaren eskutik jaso zuten zortzikoaren berri eta hala iritsi ahal izan da gaur egunera arte, sasoitsu.

La cigüeña **75%** arteko deskontuak

Zakuak, koltxonetak, bolfoak...

T+F: 948 467 106
La Paz kalea 34, Altsasu
www.facebook.com/laciguenasua
www.lacigueneta.net

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 13%	euria: 13%	euria: 18%	euria: 13%	euria: 13%	euria: 13%	euria: 13%	euria: 15%
Min: 9 Max: 17	Min: 9 Max: 17	Min: 10 Max: 17	Min: 10 Max: 20	Min: 11 Max: 22	Min: 11 Max: 24	Min: 13 Max: 26	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	23.6	5.3	13.8
Altsasu	23	7	16.4
Aralar	15.9	3	12.6
Urbasa	21	7	13.4

: ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	☾	●	☾	☽
	30	8	16	22

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Zure herriko festen programa diseinatu eta inprimatzen dugu

Urtingo Sanpedrick 2013
garagarrikak 29 - garrikak 3

URDIAIN @USKALDUNA
guai ta beti!

%5eko deskontua bazkide diren udaletxei

Eskatu aurrekontua 948 564 275

>> 11 galdera

Oscar Guerrero

Euskalteko kirol zuzendaria

Testua: Maider Betelu Ganboa



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

1. Gure doluminak, Rufino Murgia, zuen masajistaren heriotzarengatik.
Duela 21-22 urte elkarezagutu genuen eta nirekin egon da talde guztietan: Rural Kutxa afizionatueta, Kaiku, Fuerteventura, Contentpolis-Ampo profesionaletan... Azanza, Egoi, Verdugo eta Urtasun jubentzetatik beti joaten ziren berarengana masajea hartzera. Oso gogorra izan da.
2. 2009tik hona arlo pribatuan egon zara eta bat-batean Euskaltelen aritzeko aukera sortu zen. Nola hartu zenuen?
Sorpresarekin. Txirrindularitza zuzendaritzan 19 urte jarraian egon ondoren 3 urte kanpo eman ditut, Bio-Racer txirrindularitza arropa saltzen, eta pentsatzen nuen oso zaila izango zela bueltatzea. Igorrek deitu zidanean berehala eman nuen baiezkua: PRO Tour talde batean egotea eta gainera etxekoan, Euskaltelen...
3. Zure lehendabiziko Tourra izango da. Ametsa bete da?
Tourrean aritzea beti da amets handia. Ilusio handiarekin nago. Aurten, momentuz, klasiko guztiak egin ditut: Belgika, Frantzia, Holanda, Paris-Roubeaux, Flandeseko Tourra... Duela gutxi Alemaniako Bayern Rundfahrt egin nuen, segituan Dauphiné-Libéré Samuelekin eta orain Tourra. Igorrek hasieratik esan zidan Alvaro eta ni etorriko ginela Tourrera. Garaipen bat lortzeko normalean ihesaldietatik sortzen dira aukerak. Esperientzia duen zuzendariaren ahizua, ihes egindakoei aholkuak emateko.
4. Oso "guerreroak" izan dira zure taldeak.

(Kar kar). Egia esan nire taldeetan txirrindulariak nahiko "guerreroak" izan dira, beti aurrean. Baina Tourrean zailagoa izango da. Txirrindulariak sasoi batean daude, badakite zein garrantzitsua den aurrean egotea, publikitateari begira, eta ihesaldiak hemen oso garestiak dira. Tourrean presentzia asko izaten saiatuko gara.

5. Nor ikusten duzu faborito nagusia. Froome?
Aurten indartsuena izan da proba guztietan. Gero ikusi beharko dugu Contadorrek zenbat hobetu duen, Purito ere horegogoda, maila oso onean, Valverde ere...
6. Euskaltelek Anton, Nieve eta Izagirre anaiak eraman ditu. Helburua etapa garaipena da, sailkapen orokorra baino.
Nieve ahalik eta aurreneko egoten saiatuko gara, baina helburu inportanteena etapa bat lortzea da. Ea mendi etapetan Nieve ihesaldiren batean sartzen den, horrela irabazi baitzuen Giroan eta Vueltan. Igor Anton ongi dagoenean igotzailerik hoberenetako bat da eta Izagirre anaiak oso ongi mugitzen dira ihesaldietan. Mendiko sailkapenagatik borrokatu nahiko genuke.
7. Ohituta gaude Tourrean Martinez, Verdugo, Azanza eta Urtasun ikustea, baina aurten ez da hala izango.
Sakandarrak Samuelen ondoan egoten dira beti, eta Giroan aritu dira. Uste dut Vueltan Samuelen ondoan egongo direla.
8. Nola ikusten duzu txirrindularien harrobia Sakanan? Ez da erraza txirrindulariak ate-

ratzea, orain kirol asko daudelako. Baina badugu Iturmendin, esaterako, kadeteen Nafarroako erlojupeko txapelketa irabazi duen Eneko Aramendia. Gauzak ongiegiten baditu profesional izateko aukera asko izan ditzake. Beti aterako da bat edo beste, Burundak eta Aralarrek lanean jarraitzen dutelako.

9. Nabari da munduko proba inportanteenean zaudela? Diotenez, aurten Alpeek erabakiko dute Tourra.
Tourra Tourra da, Olinpiaden atzetik ekitaldirik jarraituena. Esan didate hau bezalakorik ez dudala inoiz ikusiko. Eta hori espero dut, diferentea izatea. Bestalde, Pirinioak nahiko goiz dira, eta Alpeek erabakiko dute. Jendea nekatuta egongo da eta diferentziak handiagoak izango dira.
10. Taldeko autoa gidatuko duzu? Lehendabiziko autoan, tropelaren atzetik doanean, Alvaro joango da, eta ni bigarren, ihesaldiak jarraitzen dituen. Ihesaldietan ibiliko naiz, erabakiak hartzen eta txirrindulariei laguntza ematen. Bartzutan txirrindulariak nekaturik daude, ez dute ongi pentsatzen eta horretarako gaude gu. Autoa gidatzea gustuko dut. Tentsio handia egoten da eta oso bizkor ibili behar zara: gorpil zulaketa dela korrika joan, ura eraman...
11. Nola eramaten du familiak zure ogibidea?
Skype programarekin egunero elkar "ikusten" dugu ordenagailuz, baina zaila da etxean geratzen direnendako. Etxean nagoenean emaztea eta seme-alabekin ahalik eta denbor gehien pasatzen saiatzen naiz.